

## Inoiz ez da berandu

2006ko ekainaren 30a zen. Egun honetan, Mirenek, Anek eta nik etxetik alde egitea erabaki genuen. Gazteak ginen, 22 urte gutxi gorabehera. Herri ezberdinetan bizi ginen eta azkenean, adostasun batera iritsi ondoren, gure gaztaroa elkarrekin konpartitzeko promesa egin genuen. Barkatuko didazue baina nire burua aurkeztu nahi nuke istorioan sartu baino lehen; Oihana dut izena eta arestian aipatutako bi neska haiekin hasi nuen elkar bizitza.

Egunero begiratu ohi genituen alokatze pisuen prezioak egunkarietan, baina denak nahiko garestiak ziren. Baina, halako batean Guaixe aldizkaria iritsi zitzaidan eskutara, eta han amaitu ziren gure momentuko arazoak; Altsasuko Zumalakarregi kalean sekulako pagotxaz aurkitu genuen pisua.

Hasieran dena oso polita zen; ilusio handiz bizi izan genuen proiektu berri hura gure artean.

Baina handik gutxira, eta konturatu gabe, hasiko ziren gauzak aldatzen. Hala ere, elkartzen gintuen laguntasunak pentsatu ohi genuen, edozein oztopo gainditzen lagunduko gintuela.

Nahiz eta elkarrekin bizitzen jarri, nork bere bizitza eta betebeharrak geneuzkan. Hirurak gure etxeetatik atera baginen, alde batetik askatasun edo independentzia maila bat lortzeko asmotan izan baitzen. Eta hain zuzen hor hasi zen arazo larri edo estuena. Hau da; bakoitzak denborarekin bere bizitza eraikitzea lortu zuen, batik batik Mirenek eta nik neuk, eta badirudi ezin zuela jasan edo barneratu Anek. Hirugarren hau, gehiegi sartu ohi zen besteon bakarkako bizitza pertsonalean.

Presioa gero eta handiagoa izan ohi zen; Miren han eta hemen ibili ohi zen ahal zuen lekuetan muturra sartuz, Altsasuko edozein tabernatan zerbitzari ibili zen, Sunsundegi enpresan garbiketari lanak eginez etab. Horrela behintzat, alokairua ordaindu eta eguneroko bizitzan aurrera egiteko aukera izango zuen. Nik, sei hilabete eman nituen Altsasuko INEM-era joaten, ganorazko beharra aurkituko nuelako esperantzarekin eta azkenean iritsi zen eguna; Altsasuko auto kontzesionario batean, bulegoan kontratatu ninduten.

Ane, ordea, etxean sartu zenetik ez zuen lan xistrinik egin. Hasieran, iritsi berri ginenean lan egiteko grina eta independentzia gogoia zuela agerrarazi nahi zigun; baina denborarekin eta jarrera aldaketarekin ikusi ahal izan genuen ez zela horrela izan.

Nahiz eta bakoitzak bere bizitza izan, hau da, mutilaguna etab., beti izan dugu lagunak elkar egoteko denbora. Lagunak beti lagunak izango dira, eta harreman hori ez galtzarren beti aurkitzen genuen txokoren bat gure agendatxoan. Nahiz eta, mutila izateak ere, Ane gizajoarentzat ezbeharrak ere izan zen.

Hain zuzen ere, oraingo honetan, bera izan zen urrian ospatzen diren ferietan, 2003. urtean, gure koadrilan gelditzen zen bikote gabeko neskatxa bakarra. Bazirudien, horrek ez zuela asko laguntzen. Horregatik, beste bi bikoteetan muturra sartzen hasi zela konturatu nintzen. Hasieran “gizajo” plantak egiten zituen bikotearen aurrean, baina neskak desagertu orduko, mutilak lausengatzen saiatzen zen. Urte hartako festak, oso gogorrak izan ziren; egunez egun eta gauez gau, gera okerrago baitzegoen egoera. Mutilak, gainera, anitz harrিতuta bizi ohi zuten egoera hura. Horregatik, bere

lagunekin geratuak zirela esan ohi zuten. Bitartean, Mirenek eta biok, egoera gero eta sostengaezinarekin aurrera jarraitzen genuen. Festak, noiz amaitzeko esperoan.

Jaietako jarrera zela medio, jarraipen txiki bat egitea erabaki genuen. Adibidez, etxeko giroan oinarrituz, neska honek, iritsi zenetik ordura arte, aldaketa izan zuela sumatu zuten. Jadanik ez zen hain partehartzailea etxeko lanetan; hasiera batean, laguntzeko prest egoten zen edozein momentutan, baina azken aldian, ezta seinalerik ez. Bere logelan sartu eta ez zen handik irteten jatorduak izan arte. Gainera, esan beharra dago, bere gela txukuna sekulako txerritegia bihurtu zela; arropak han-hemen, zakarra ohe azpian, etab..

Mirenek esan zuen: “Hau ez da gure betiko Ane! Zerbait gertatzen zaio!”

Eta nik berehala esan nion: “ Bai, bai, hemen norbaitek laguntza beharra duelakoan nago!!”

Mirenek: “Zer iruditzen, gurasoei dei bat egiten badiegu?? Badaezpada ere...”

Pentsatzen jarriz gero, ez du aspaldi gurasoen berri aspaldi izan, ez eskutitzik, ez deirik, ez bisitarik, ezer ere ez.

Oihana: Ideia ona da, behintzat honelako zalantza hauek argitu daitezten...

Beraz, arratsalde hartan bertan bi neskak Aneren gurasoen etxera telefono deia egitea erabaki zuten. Behin eta berriz deitu ondoren, azkenean norbaitek telefonoa eskegi zuten; ama zen.

Emakumearekin hizketaldia izan ondoren, nahiz eta ez hain luzea izan, nahikoa izan zen Aneren azkenaldiko aldaketaren zergatia justifikatu ahal izateko; izan ere, familiarekin arazo larriak izan zituen eta batik bat etxetik joan zenean. Miren eta ni, saiatu ginen bere amari ahalik eta informazio gehien ateratzen, jazotako gertaerei buruz, baina, honek, nahiago izan zuen esaerak dioen bezala “*trapu zaharrak etxean bakarrik astintzen dira*” esan. Honela deia moztu zen.

Beraz, geneukan informazioa baliotsua kontuan izanik, gure Ane maitea laguntzeko plan bat eratzea pentsatu genuen; gurasoak oso minduta ziruditen eta euren ekarpena eskatzea gehiegizkoa zela pentsatu genuen. Orduan, edozein bide edo medio bilatu behar genuen, baina zein? Saiakera bat baino gehiago egin genituen gure laguna aldarazteko edo behintzat irribarre bat erakuts ziezagun; baina dagoeneko berandu zen. Gauzak okerrera joan ziren eta gure bizilaguna droga kontuetan sartua zebilela antzeman genuen.

Oso gogorra egin zitzaigun beste kontu honi aurre egitea, gai hauek ez baitira batere xamurrak. Hasteko antzematea, gero zergatik egin izango duen jakitea eta azkenik, erremedioa edo arazotik ateratzeko bidea izaten jakitea.

Garai haiek kontuan izanik, inolaz ere ez genuen ahaztu izan elkartzten zuten laguntasun sentimendua. Honi esker, gure Anetxo desintoxikazio zentro batera eramateko aukera izan genuen, han, ahal bezain laster lehengoratu zedin.

Errehabilitazioak iraun zuen denbora nahiko luzea izan zen. Hala ere, bisita uneetan han egoten ginen bere aurpegia ikusteko zain. Egunez egun, hobekuntza jazo zela antzematen zen bai fisikoki, nola psikologikoki. Gainera, gu ez ginen bisitari bakarrak.

Terapia bati esker, gurasoekin hobeki moldatzen hasia zela zirudien eta ama noizean behin ere bertan agertu ohi zen bere alabaz galdezka.

Egunak joan egunak etorri, iritsi zen alta emateko eguna eta batera zentro hartatik ateratzeko ordua. Momentu horretantxe erabaki zuen gurasoei bai Miren eta niri barkamena eskatzea. Asko sentitzen zuela biziarazi zigun infernuarengatik eta aukera berri bat ematea eskatu zigun, batez ere laguneren elkarbizitzari dagokionez; bizitza berri bati hasiera emateko momentu egokia zelakoan. Honela, hirurok elkarri besarkada handi bat emanaz, Altsasura bueltatu eta Anerentzat probetxuzko zerbait egiteko plan bat eraikitzen hasi ginen.

Hasteko, Altsasuko AEK euskaltegian bere izena eman genuen EGA mailan. Turismo bulegoan garbitzaile lanak egiten hasi zen; behintzat, egunero zerbait egiteko aukera izango zuela pentsatzen genuen. Horrela hasiko zen lan mundua gure neskarentzat eta honela, promes egindako bizi berria.

**Egilea:** Saioa Lazkano